

## OHARRA (22/12/13an)

SEPEk emandako azalpena jaso ondoren, jakinarazten da **posible dela** INVESTIGO-SEPE PROGRAMAREN laugarren deialdirako eskaeran etiketa berdeari edo zerbitzuen digitalizazioari **lotuta ez dauden** ikerketa-proiektuetarako enplegu-eskaintzak sartzea.

Bidezkoa da 2022/11/29an argitaratutako jarraibideetatik paragrafo hau kentzea:

“Deialdi honetan, laguntzen xede diren kontratatutako pertsonak garatu beharreko ikerketa-, berrikuntza- eta I+G+B jarduerak, zerikusia izan beharko dute nahitaez ekonomia berdearekin, trantsizio ekologikoarekin edo “**etiketatze berdearekin**” lotutako beste jarduera batzuekin; edo zerbitzuen digitalizazioarekin, eraldaketa digitalarekin edo etiketatze digitalarekin lotutako beste jarduera batzuekin.”

Paragrafo horren ordez, TES/1267/2021 oinarri-aginduaren 2.2 artikulua jarriko da:

“2. Berrikuntza- eta ikerketa-ekimenak eta I+G+B sailenak osasunarekin, trantsizio ekologikoarekin, ekonomia berdearekin (energia berriztagarriak, uren eta hondakinen tratamendua eta nekazaritzako elikagaien industria), zerbitzuen digitalizazioarekin eta «data science» arekin lotutako okupazioetan egingo dira, batez ere.